

EMEAK ETA ARRAK

Onintza Enbeita Maguregi

“Erpeka” blogean [offline]

2006-04-04

Mezua: Emeak eta arrak

06.04.04

Pentsatu ahala, 269 hitz

Emeak eta arrak

Emetik bertso kabaretaren lehenengo aktuazioa zpatuan egingo dugu Larrabetzun. Hiru neskak sortu dugun proiektu berria da. Bertsoa dauka oinarrian. Bat bateko bertsoa. Emankizunetan bat bateko bertsoa janzten saiatuko gara: bertso jarriak, musika, olerkiak, antzerki apur bat... Baina bertsoak janzteko erabiliko ditugun teknikak baino garrantzitsuagoa da, bertsoa jantzi ahal geu biluztuko garela.

Emetik ipini diogu bertso kabareta gure emakumetasunetik, emetasunetik, andratasunetik kantatu gura dugulako. Munduaren aurrean daukagun iritzia emateko klabija eta sentipen emeak erabili gura ditugulako. Gu emeak garelako.

Agurainen egin genuen frogarako saioa, edo 0 saioa. Jendea batu zen Herriko Tabernan. Jendea adi-adi izan genuen hasieratik, baina uneka sentsazio arraroak hartzen gintuen. Izan ere, lehenengoa zen, ez genekien asmatzen ari ote ginen, eta geure burua lotuta ikusteko beldurra genuen. Baina amaieran jendeak esan zigun oso polita izan zela. Momentuan ezin izan nuen ulertu. Nola leike gustatzea, ez badugu ia ezer sumatu publikoaren aldetik?

Hurrengo egunean jaso nuen erantzuna. Alde batetik publikoak ez zekien zer ikustera zetorren eta ez zuen espero bertsoak, elkarrizketak... bat batekoak izango zirenik, eta hasieran galdu samar gelditu ziren. Baina hori baino gehiago esan ziguten, "barre zabalen partez, irribarrea Portu arren, ez aldatu formula. Ez egin txiste ar errezak". Eta ar jarri dut. Arraz ari naiz. Badirudi Agurainen ulertu dutela guk zer gura dugun.

Edozelan ere, konturatu naiz ze eskema maskulinoak ditugun. Bertsoan ere, oso era arrear egingen dugula iruditzen zait. Ez gara saiatzen gure senean dagoen alderik femeninoenak esaten diguna ateratzen. Ez nuke nahi gure kabaretean dena emea izaterik edo emeegia, baina orekan dago gakoa. Eta uste dut denok egin beharko genukeela ahalegin txikia gure barruko emea argitaratzeko. Berez ere, nahikoa mundu arrear bizi gara eta.

Erantzun 1

Erantzunak:

Bidaltzailea: txerren [Bisitaria] ·

<http://txerren.larrutan.com/bloga>

Ez dakit, Onintza.

Pertsonalki nahiko aspertuta nago emetasun eta artasun kontu hauetaz.

Iruditzen zait halako genero harrotasun bat inkulkatu digutela gure arteko diferentziak puztera garamatzana, finean sarritan uste duguna baino askoz antzekoagak (identikoak ez esatearren) garen arren.

Piska bat kokoteraino nago "emakume idazle", "neskenezko aldizkari" eta "gizonezkoentzako kosmetikoetaz", eta ez nuke nahi bertsoaren munduarentzat bestela ere gure inguruan sobera dugun segregazio sexual hau hedatzerik.

Eta ez nabil esaten zuen kabaretak hori bultzatzen duenik eh! Badakit "bestelako" moldeen alde egin nahi duzuela, ez genero harrokeririk bultzatu. Neura pertsonal hau besteekin banatu nahi nuen, besterik ez ;)
